

Bartzelonako 14-15 urteko gaztetxoek cannabis probatzeko asmoak

Gaztetxoek artean cannabis kontsumitzearen iragarle izan daitezkeenak zeintzuk diren ezagutu nahi izan dituzte, epe-luzerako diseinua duen azterlan honetan. Tabakoa erretzeak cannabisaren erabilerekin dituen harremanak azpimarratu eta adiskideen artean ematen diren cannabisaren erabilerak hartu dituzte, etorkizunerako cannabisaren erabileraren oinarriko iragarle gisara.

PÉREZ, A. ETA BESTE BATZUK
CANNABIS CONSUMPTION INITIATION AMONG ADOLESCENTS: A LONGITUDINAL STUDY.
ADDICTIVE BEHAVIORS, 35 BOL., 2 ZENB. 129-134 OR., 2010.

Gizartearen baitan cannabisaren kontsumitzeen inguruan ematen den tolerantziak eta gehienetan astialdiarekin lotutako kontsumitzeak izatearekin, arriskuen ardurak gutxitu eta adinaren arabera, geroz eta kontsumitze goiztiarragoak egiten direla erakutsi dute azterlan gehienetako datuek. 1990eko hamarkadako joeretan, Europan zehar cannabisaren kontsumitzeen hedatzeak eta cannabisaren tratamenduetan hartzeko eskarien hazkuntzak egoeraren larriagotzea iradokitzen zuten arren, gaiaren kontsumitzeen prebalentziak altuak izaten darraiten garai honetan, hazkundera eutsi edota behar ez diren zantzuak antzeman dituzte, gai honen inguruan eginiko azkeneko azterlan batzuetan. Joeretan gelditze honen arrazoiak zertan diren aztertzeak dauden arren, cannabisaren kontsumitzeen inguruan hautesmaten diren arriskuen goratzeak edota tabakoaren inguruan ematen ari den jarrera sozialaren aldaketak hartu dituzte kontutan aditu batzuen aipamenek.

Bartzelona hirian, 14 eta 15 urtekoen artean buruturiko zeharkako bi azterlanen aldeei begiratu ezker, 2000 eta 2005 urteen arteko datuak bikoiztu izana azpimarratu dute, cannabisaren kontsumitzeen prebalentzia %37ko tasaren ingururaino iritsi delarik. Hamabost hilabeteetan zehar Bartzelonako 1328 eskola-ikaslerekin eginiko ebaluazio baten bidez, cannabis kontsumitzeen hasteko faktoreak zeintzuk diren ezagutu nahi izan dituzte azterlan honetan. Aurreko azterlanekin alderatu ezker, epe-luzeko azterketa izatearen abantailak eta eragile izan daitezkeen aldagai kausal bakanak bilatu beharrean, oraingoan, cannabis kontsumitzeen hasteko faktore desberdinak zeintzuk diren bilatu dituzte. Aldagai demografikoetatik eta sozioekonomikoetatik gain, drogen erabilerak, jokabide antisozialak eta cannabis kontsumitzerakoan espero dituzten eraginak zeintzuk izango diren galdetu diete gaztetxo hauei.

Ebaluazioaren hasieran, behin ere kontsumitu ez zuten horietatik laurden batek, hamabost hilabeteetako ebaluazioaren epean, noizbaiten cannabis kontsumitu izan omen du. Noizbehinkako kontsumitzeak egiten zituztenen hirutik baten proportzioan, cannabisaren erabilera-maiz-

tasunak hazi egin dituzte eta aurreko hilabeteen kontsumitu izana onartutako horien arteko erabilera-maiztasunak berean omen dirau ebaluazioaren bukaeran. Mutilen arteko, cannabis erabiltzeko bost iragarle nagusi aurkitu dituzte azterlanean: aurreko hilabeteen behingoan behintzat tabakoa erre izana, alkoholaren erabilera arriskutsuak egitea, tabernetara eta diskoteketara joatea, astialdirako egitasmorik ez edukitzea eta cannabis probatzeko asmoak izatea. Nesken kontsumitzeen iragarle gisara, lau aurkitu dituzte: aurreko hilabeteen tabakoa erretzea, alkoholaren erabilera arriskutsuak, cannabis erretzen duten adiskideekin ibiltzea eta cannabis probatzeko asmoak edukitzea.

Espanian oso esanguratsuak diren tabakoaren eta cannabisaren arteko loturak azpimarratu dituzte txosten honetan. Zigarroren bat erretzen duten mutilen artean, lau aldietan hazten omen dira cannabis probatzeko aukerak. Gaztetxoek ezetz esatearen rolari garrantzia handia hartu diote eta gaia probatzeko asmoen aurrean, jarrerak aldatzeko duten garrantziagatik, prebentzio saioak indartzearen beharra nabarmendu dute azterlan honetako egileek. Kide direnen arteko kontsumitzeen presioak neskengan eragin handiagoa izan arren, generoaren ikuspegitik ohikoak izan diren aldeak, iragarle gisara duten indarra urriagotu edota aldatzen ari direnaren zantzuak aurkitu dituzte azterlan honetan. Egileek aurkitu dituzten bestelako iragarle soziodemografikoak, honako hauek dira: gurasobakarreko etxean bizitzea, eraginkortasun akademiko baxua, jokabide antisozialak eta eskola-absentismoa. Azken batean, legezko gaien kontsumitzeak egiten dituztenak, adiskideen taldean cannabis erabiltzen dutenak eta mutilen kasuan, astialdirako egitasmorik betetzen ez duten horien artean ematen omen dira cannabis kontsumitzeen hasteko asmo gehienak.

Ebaluazioaren hasierako eta bukaerako cannabisaren kontsumitzeak. Nerabeen kopurua eta ehunekoa

Hasierako kontsumitzeak	Bukaerako kontsumitzeak			
	Batez	Noizbehinka	Aurreko hilabetean	Guztira
Batez (N=929)	709 (%76,3)	170 (%18,3)	50 (%5,4)	220 (%23,7)
Noizbehinka (N=310)	13 (%4,2)	203 (%65,5)	94 (%30,3)	297 (%95,8)
Aurreko hilabetean (N=89)	2 (%2,2)	50 (%56,2)	37 (%41,6)	87 (%97,8)
Guztira (N=1.328)	724 (%54,5)	423 (%31,9)	181 (%13,6)	604 (%45,5)